



Euskal Herriko oihanak

2

Azalpena eta oharrak

Paisaia baten osagaien ezagutzea lehen mailako geografia betebeharretan da. Sekuentzia honen helburu nagusia izanen da oihan-eremuen irudikapenarekin trebatzea eskualdeko edo lekuko mapei begiratuz eta irakurtzen ikasiz. Euskal Herriari dagokionez, ikasleek lekuko ingurunearen hobeki ezagutzeko parada izanen dute, hala nola oihanalde nagusiak, haien kokaguneak eta ezaugarriak.

Nondik has

Iragan igandean familiarekin Irati aldean edo Senpereko oihanean izan gara, hots oihan batean. Ikusi dudana oihanaz gehiago jakin nahi dut.

Oihan epelak, oihan ekuatorialak, oihan borealak aipu dira. Zein dira haien arteko desberdintasunak? Euskal Herriko geografia ikertu nahi dugu ikasgelan; oihanalde handienak zein diren ikus dezagun.

Haurrengandik entzun daitezkeen galdeak

Zein dira Euskal Herriko oihanalde handienak?

Nola bereiz oihanak Euskal Herriko mapan?

Iratiko oihana eta Uztaritzekoa ez dira berdinak. Zein dira ezberdintasunak?

Jarduera batzuk

Eskualdeko oihanez dokumentuen eta mota guzietako informazioaren bilketa.

Oihanzaingoko teknikari baten bisita ikasgelan.

Oihan hurbil baterako ibilaldiaren prestaketa.

Mapa geografiko baten irakurketa. IGN mapen seinaleetika ezagutu.

Euskal Herriko oihanaren historia.

Pirinioetako eta Landetako oihanak.

Euskal Herriko mapa eraiki oihanalde handienak irudikatuz.

Ikasiaren finkatzeko jarduerak

Oihaneko ibilaldiaren txostena egin.

Bakarka ikaslearen fitxa bete.

Uztaritzeko oihana mapan ikertu.

**2/1****2/2****2/3****2/4****2/5****2/6****2/7**

ikaslearen fitxak

Jakintasunak

Lekuko planoen irakurketa.

Mapa baten zonaldeak identifikatu.

Tokia ikusi ondoan, haren irudikapenarekin trebatu.

Ibilaldi baten txostenaren egiten trebatu.

Argazki irakurketa : paisaiak identifikatu eta haien deskribapena egin.

Euskarri dokumental desberdinen baliatzen ikasi.

Dokumentazio lan batetik laburbiltzen ikasi.

Dokumentazio iturriak

Plano katastralak (Herriko etxeetan edo Zerga etxean : Hôtel des impôts - 11, Vauban karrika - Baiona).

ONF-en dokumentuak : Espainia karrika - Baiona.

Plano turistikoak.

IGN mapak (www.ign.fr).

Oihanaz zer erran...

Oihana

Lur-globoaren lurrazalaren laurdena oihanez estalia da. Siberian, Amazonian eta Kanadan dira oihanik handienak.

Oihan garbia

Bere baitarik jina eta hala-hala den oihana *oihan garbia* deitzen da. Jendeek ez dute deus aldaketarik eginik. Polonian aurki daiteke Europako azken oihan garbia. Gure lurraldeetan oihan zaharrak badira oraino baina, denak, guti edo aski hunkitu dituzte jendeek. Oihan osoak badira jendeek landatuak, hala nola Landetako oihana.



Oihana sinesmenetan

Oihana betidanik izaki fantastikoen gordelekua izan da. Lehengo denboretan, leienda anitz kontatzen zen supazterrean. Euskal Herrian, oihan handiak laminek babeslekuak omen ziren. Basajaun eta Basandere, adibidez, oihanean bizi ziren. Eskualde bakoitzak baditu zein bere sinesmenak. "Korrigan" Bretanian, "Farfadet" Poitou aldean, "Servan"-a Alsazian, "Sotr " Vosgeak aldean, "Gnome" Ardenetan.... Lamina horietatik gutiz gehienak gauaz oihan handi barneetan gurutza zitezkeen. Eta hori hala balitz !

Oihanaren beldurra

Lehengo jendeentzat oihana beldurgarria izaten zen : otsoen, gaizkileen eta izate gaiztoen gordelekua. Nehor handirik ez zen atrebitzen bidexka edo xendretarik kanpo. Ardenak edo Vend e aldeetan, oihan bazterretan, zurezko gurutze handiak landatzen zituzten jendeen begiratzeko. Euskal Herrian, XVIII. mendean, Baigorriko ibarrean, agintariak noiztenka gaztigu espedizioak antolatzen zituzten Hairako oihanera gaizkile taldeen aurka.

Oihana lehen eta orain

Lehengo denboretan, oihanak orain baino hedadura handiagoa zeukan ; Sahara basamortua hasieran oihanez estalia zen. Berrikiago, Nafarroan, Iru earen hegoaldean den Bardeak gunea oihanalde izanik 400 km²-ko basamortua bilakatu zen XV. mendean.

Euskal Herriko oihanak

Garai batez oihanek eremu zabalak hartzen zituzten; gaur egun, aldiz, franko gutituak dira eta leku askotan (Bizkaian eta Gipuzkoan bereziki) lekuko zuhaitz moten ordezkariak kanpokoak landatu dira, hazkunde erreza eta lasterra dutelako. Hala ere, oihan ederrik bada oraino: Irati (Naf., Naf. B.), Andia (Naf.), Urbasa (Naf.), Kintoa (Naf.), Iteko oihana (Zub.), Aralar (Gip., Naf.), Amikuzeko oihana (Naf. B.), Hairako oihana (Naf. B.), Senpereko oihana (Lap.)...

Mende luzetan oihanak helburu desberdinengatik ustiatu dira. Laborantzaren garapena basoaren etsaia izan zen: su ematen zitzaizkien basoei lurraren lantzeko.

Jadanik 1293 urtean, Armendaritze (Naf.B.) eta Iholdiko (Naf.B.) herriek isunak ordaindu behar izan zituzten baimenik gabe oihana erre zutelako.

Bestalde, garai bateko ontzigintzaren beharrak oso handiak ziren; ez dugu ahanzi behar Erdi Aroan penintsulako itsasontzi industria kasik osoa Bizkaian eta Gipuzkoan kokatua zela.

Oihanen ustiatzeko beste arrazoi bat burdingintza zen.

Burdingintza aspal-dikoa da gutartean, badirudi zeltek ekarri zutela langintza hau bospasei mende Kristo aurretik.

Berantago, lehen mendean, **Plinio** geografoak Euskal-Herriko meatzeak aipatu zituen. Erromatarrek ongi ezagutu eta ustiatu zituzten meatze batzuk Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; hauetatik, burdinaz gain, zilarra eta **beruna** ateratzen zituzten.



Euskal Herriko ikaztegi bat

© Koldo Alduntzia

Langintza honek oihana behar-beharrezkoa zuen, mearen urtzeko ikatza behar baitzen eta honen egiteko aldiz egurra. Horregatik, hasiera batean, olagizonak ikazkinak ere ziren eta olak oihanetatik hurbil zeuden.

Laborarien eta oletako langileen artean gatazkak sortu ziren, batzuen eta besteen beharrak ezberdinak izanik: Legazpin (Gip.) XV. eta XVI. mendeetan, bai eta Alduden XVIII. mendean.

Xamar, *Orhipean*, Pamiela, IKASek moldatua.

■ **Plinio**: 62 K.A. sortua. Abokatu eta kontsul izan zen Erroman. Bere garaiko bizimoldeaz lekukotasun anitz idatzi zuen.

■ **Beruna**: plomua.



Ipar Euskal Herriko oihan nagusiak

© H. Laquet-Fiau



* kudeantza publikoaren esku den oihan eremua

Iratiko Oihana

Garazi eta Zubero aldea

Oihan-azalera : 3900 ha*

Zuhaitz-mota nagusia : pagoa

Altitude ertaina : 880 m menditar estaia

Lekuko fauna : azeria, oreina, basurdea, orkatza, azkona, anderederra (erbinudea) katajineta, urtxintxa...

Espezie arraroa (bakana) : rhyode sulcatus. Arrunt bakan den intsektua. Iratiko izeien enborretan bizi da.

Aurki daitekeen flora arraroa : larralili (ilarka) piriniarra, ureko hirusta, Saint Daboec-ko ilarka edo ainarra...

© Beñat Errecalde



Hairako oihana

Oihan-azalera : 1700 ha*

Zuhaitz-mota nagusia : pagoa

Altitude ertaina : 800 m menditar estaia

Lekuko fauna : azeria, basurdea, orkatza, azkona, anderederra (erbinudea), erbia, ipurtatsa, urtxintxa...

© H. Laquet-Fiau



Uztaritzeko oihana

Oihan-azalera : 640 ha*

Zuhaitz-mota nagusia : haritz kanduduna

Altitude ertaina : 130 m mendibera estaia

Lekuko fauna : azeria, basurdea, orkatza, azkona, anderederra (erbinudea), erbia, ipurtatsa, urtxintxa...

Espezie arraroa (bakana) : kaprikornio handia, alpetar rosalia-a, arkanbelea

© Ikas



Amikuzeko oihana

Oihan-azalera : 655 ha*

Zuhaitz-mota nagusia : haritz kanduduna

Altitude ertaina : 130 m mendibera estaia

Lekuko fauna : azeria, basurdea, orkatza, azkona, anderederra (erbinudea) katajineta, urtxintxa...

Espezie arraroa (bakana) : desman piriniarra, bisoi europarra

Aurki daitekeen flora arraroa : tuliparbola, liken arraroak : isopyrum-a